



**BIBLIOTEKARIEN HASIERAKO EBALUAKETAREN
EMAITZAK**

2016-2017. ikasturtea

Galtzagorri Elkarte
2017ko ekaina



SARRERA

- Txosten honetan Bularretik Mintzora egitasmoan sartuta dauden 15 bibliotekarien hasierako galdekizunen emaitzak aurkezten dira.
- Ebaluazio hau 2016-2017. ikasturteko bigarren hiruhilekoan egin da. Ebaluaketa honetan biblioteka hauek parte hartu dute:
 - Abusu (Arrigorriaga)
 - Aretxabaleta
 - Donostia (Haur Liburutegia)
 - Eibar
 - Errenteria
 - Hernani
 - Legazpi
 - Pasaia (Trintxerpe)
 - Amurrio
 - Arrasate
 - Donostia (Ernest Lluch)
 - Ermua
 - Eskoriatza
 - Iurreta
 - Markina-Xemein
- Galdekizunak 20 bibliotekariren artean banatu dira: **20 galdekizun**. Horietatik, **15ek erantzun** dute, beraz, % **75ak**.

HASIERAKO GALDEKIZUNAREN HELBURUA

- Ebaluazioak lau helburu orokor ditu:
 1. Bibliotekaren “datuak” azaltzea; Dokumentu kopurua, urteroko mailegu kopurua, urteko bazkide berrien hazkundera, baliabideen erabilpena, ...
 2. Zer nolako ekintzak antolatzen diren bibliotekan irakurzaletasuna suspertzeko ezagutzea.
 3. Irakurzaletasuna sustatzerakoan, biblioteka norekin aritzen den elkarlanean ezagutzea.
 4. Bibliotekara joaten diren erabiltzaileen (gurasoen, irakasleen eta haurren) jarrerak ezagutzea.
- Hasierako galdekizunarekin aipaturiko gaietan “oinarrizko abiapuntua” identifikatzen da, gerora, egitasmoaren eraginkortasuna aztertu ahal izateko.

METODOLOGIA

- Hasierako egoera ebaluatzeko galdekizun bat sortu da. **Aldagai** hauek kontuan hartu dira:
 - 1. Bibliotekaren datuak**
Izena, helbidea, dokumentu kopurua, ...
 - 2. Bibliotekak egiten dituen ekintzak**
 - 3. Bibliotekak elkarlanerako dituen harremanak**
 - 4. Urteko mailegu kopurua**
 - 5. Urteko bazkide berrien kopurua**
 - 6. Ahozkotasunarekin lotutako baliabideen erabilpenaren maiztasuna**
 - 7. Gurasoen jarrera bibliotekan**
 - 7.1. Helburua
 - 7.2. Jarrera mota haurrarekin
 - 7.3. Bibliotekan egoten diren denbora
 - 8. Irakasleen jarrera bibliotekan**
 - 8.1. Helburua
 - 8.2. Jarrera mota haurrarekin
 - 9. Haurren jarrera bibliotekan**
- Galdekizun moldatuak **10 galdera** ditu (denak erantzun itxiekini).
- Galdekizunak **20 biblioteketan** banatu dira. Epe bat eman ondoren, aipatutako 15ak jaso dira, datuak bildu eta estatistikoki tratatuak izateko. Txosten honetan azaltzen dira prozesu horren emaitzak.




TXOSTENA

BIBLIOTEKARIEN HASIERAKO EBALUAKETAREN EMAITZAK

2016-2017. ikasturtea

1. BIBLIOTEKAK EGITEN DITUEN EKINTZAK




- **% 56ak** dio ***ipuin kontaketak*** egiten dituela
- **% 80ak** dio ***irakurketa klubak*** egiten dituela
- **% 65ak** dio ***formazio ekintzak*** burutzen dituela

Biblioteka gehienek ipuin kontaketak eta irakurketa klubak egiten dituzte.

Herenak ez du formazio ekintzarik egiten.

2. BIBLIOTEKARIEN ELKARLANERAKO HARREMANAK



- **% 93ak** ditu harremanak ikastetxeekin
- **% 40ak** ditu harremanak Osasun Zentroekin

la guztiek harremana dute ikastetxeekin.

Aldiz, erdiak baino gutxiagok dute harremana Osasun Zentroekin.

3. URTEKO MAILEGU KOPURUA

2016an, biblioteka bakoitzaren mailegu kopurua, honakoa izan da:

Biblioteka	Biztanleria	Maileguak	% (M→B) (*)
Abusu (Arrigorriaga)	8.000	2.164	27,05
Amurrio	10.311	4.051	39,29
Aretxabaleta	6.993	8.287	118,50
Arrasate	22.052	14.575	66,10
Donostia (Haur Liburut.)	22.501	26.803	119,12
Donostia (Ernest Lluch)	25.618	15.008	58,58
Eibar	27.498	16.391	59,60
Ermua	16.109	4.095	25,42
Errenteria	39.500	16.652	42,16
Eskoriatza	4.080	4.227	103,60
Hernani	19.712	8.380	42,51
Iurreta	3.647	2.800	76,77
Legazpi	8.480	6.621	78,08
Markina-Xemein	4.970	4.000	80,48
Trintxerpe (Pasaia)	5.855	2.397	40,93
Guztirak	225.326	139.451	61,89

(*) **M→B indizea** Maileguen kopurua, bibliotekaren biztanleriaren arabera, ehunekoan adierazita

- 15 biblioteken *urteko mailegu kopurua, biztanleriaren arabera*, batez beste **%61,89koa** da.

4. URTEKO BAZKIDE BERRIEN KOPURUA


2016an biblioteka bakoitzean egin diren bazkide berrien kopurua honakoa da:

Biblioteka	Biztanleria	Bazkide berriak	% (Bb→B) (*)
Abusu (Arrigorriaga)	8.000	178	2,22
Amurrio	10.311	189	1,83
Aretxabaleta	6.993	154	2,20
Arrasate	22.052	215	0,97
Donostia (Haur Liburut.)	22.501	473	2,10
Donostia (Ernest Lluch)	-	-	-
Eibar	27.498	607	2,20
Ermua	16.109	294	1,82
Errenteria	39.500	392	0,99
Eskoriatza	4.080	70	1,71
Hernani	19.712	426	2,16
Iurreta	3.647	125	3,42
Legazpi	8.480	150	1,76
Markina-Xemein	4.970	120	2,41
Trintxerpe (Pasaia)	5.855	110	1,88
Guztirak	199.708	3.503	1,75

(*) **Bb → B indizea**: Bazkide berriak, bibliotekaren biztanleriaren arabera, ehunekoan adierazita

- Biztanleriaren arabera, 15 biblioteketan egin diren *bazkide berrien batezbestekoa* **%1,75ekoa** da.


5. AHOZKOTASUNARI LOTUTAKO BALIABIDEEN ERABILPENAREN MAIZTASUNA



- **%93ak** dio beste baliabideekin konparatuz, haur kantak, poesia, hitz jokoak, ... **gutxi** erabiltzen direla.


6. GURASOEN JARRERA BIBLIOTEKAN

6.1. Helburua




- **%47ak** dio gurasoak bibliotekariengana **sarri** zuzentzen direla *ipuin, liburu, ... egokien aholku eske*. Erdiak dio bakarrik **batzuetan** zuzentzen direla.
- **%40ak** dio gurasoak bibliotekariengana **inoiz ez** direla zuzentzen irakurketari dagokionez *haurrarekin izan beharreko jarrerren argibide eske*.
- **%73ak** dio *narrazio tekniken eske* **inoiz ez** direla zuzentzen bibliotekariengana.

6.2. Jarrera mota haurrekin



- Orokorrean, bibliotekarien ustez, gurasoek hiru jarrerak agertzen dituzte **batzuetan**.
- **%24ak** dio **sarritan** azaltzen dutela jarrera aktiboa: hau da, gurasoek haurrekin jardueran parte hartzen dutela.
- **%20ak** dio **sarritan** jarrera *pasiboa* agertzen dutela (jardueran ez dute parte hartzen) eta **%13ak** dio jarrera *inhibitzailea* azaltzen dutela (bakarrik uzten dute haurra, nahi duena egiten,...).


6.3. Bibliotekan egoten diren denbora



- **%53ak** dio guraso gehienak 20 minutu baino gutxiago egoten direla hurrekin batera bibliotekan.
- **%47ak** dio 20 minutu baino gehiago egoten direla.


7. IRAKASLEEN JARRERA BIBLIOTEKAN

7.1. Helburua




- **%40ak** dio irakasleak bibliotekariarengana **sarri** zuzentzen direla *ipuin, liburu, ... egokien aholku eske*. Beste **%40ak** dio **batzuetan** zuzentzen direla beraiengana.
- **%67ak** dio irakasleak **ez direla inoiz** zuzentzen bibliotekariarengana *narrazio tekniken eske* eta **%47ak** dio *baliabide literarioak ezagutzeko inoiz ez* direla zuzentzen bibliotekariengana.

7.2. Jarrera mota haurrekin



- **%33ak** dio **sarritan** azaltzen dutela *jarrera aktiboa*, hau da, irakasleek haurrekin jardueran parte hartzen dutela. Beste **%47ak** dio jarrera hau, batuetan azaltzen dutela.
- **%26ak** dio irakasleek **sarritan** jarrera *pasiboa* agertzen dutela (jardueran ez dute parte hartzen) eta beste **%56ak** dio **batuetan** azaltzen dutela jarrera pasiboa.
- **%40ak** dio irakasleek **inoiz ez** dutela jarrera *inhibitzailea* (bakarrik uzten dute, nahi duena egiten ,...) azaltzen. **%20ak** dio jarrera hau batuetan azaltzen dutela.

8. HAURAREN JARRERA BIBLIOTEKAN



- **%67ak** dio haur gehienek jarrera egokia azaltzen dutela bibliotekan; aukeraketan autonomia azaltzen dute, liburua bere lekuan uzten dute, lasai egoten dira, ...
- **%33ak** dio haur gehienek jarrera desegokia azaltzen dutela bibliotekan; ez dute autonomia azaltzen, garrasi, korrika, jolasean, ... ibiltzen dira.